



**IZENPE S.A.n ARAUTZE  
HARMONIZATUAREN MENDEKOA  
EZ DEN KONTRATAZIOA EGITEKO  
BARNE JARRAIBIDEAK**

Izenpe

2012ko martxoa



IZENPE S.A.n ARAUTZE HARMONIZATUAREN MENDEKOA EZ DEN KONTRATAZIOA EGITEKO  
BARNE JARRAIBIDEEN AURKIBIDEA

<b>1- Aplikagarri den araudia</b> .....	3
<b>2- Xedea</b> .....	4
<b>3- Kontratazioa antolatzeko printzipioak</b> .....	4
<b>4- Kontratazio-espeditentea:</b> .....	5
<b>5- Kontrataziorako barne-jarraibideen mendeko kontratuak</b> .....	5
<b>6- Edukia eta kontratu-motak</b> .....	5
<b>7- Kontratuaren premia eta egokitasuna</b> .....	7
<b>8- Baldintzak finkatzea</b> .....	7
<b>9- Kontratazio-organoak</b> .....	7
<b>10- IZENPErekin kontratatzeke gaitasuna</b> .....	8
<b>11- Kontratazioaren kudeaketa arautze harmonizatuaren mendeko ez diren IZENPEren kontratueterako. Zenbatekoak eta prozedurak.</b> .....	9
<b>12- Bermeak</b> .....	14
<b>13- IZENPEren hornitzaileen zerrenda</b> .....	14
<b>14.- Eusko Jaurlaritzaren eskaintza aplikazioa erabiltzea.</b> .....	15
<b>15- Kontratazioa arrazionalizatzeko sistemak</b> .....	18
<b>16- Kontratuen izaera juridikoa</b> .....	19
<b>17- Jakinarazteko arauak</b> .....	20
<b>18- Kontratatzailearen profila</b> .....	20
<b>19- Presako prozedura</b> .....	21
<b>20- Kontrataziorako barne-jarraibideak aldatzea</b> .....	21
<b>21- Kontrataziorako barne-jarraibideen indarraldia</b> .....	21
<b>22- Jurisdikzio eskuduna</b> .....	21



## **IZENPE S.A.n ARAUTZE HARMONIZATUAREN MENDEKOA EZ DEN KONTRATAZIOA EGITEKO BARNE JARRAIBIDEAK**

### **1- Aplikagarri den araudia**

"Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE S.A." sozietatea (aurrerantzean IZENPE) sektore publiko deitzen dugunaren barnekoa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen arabera. Horri jarraiki, aginte esleitzaila izango du eta ez da administrazio publiko izango.

Kontrataziorako barne-jarraibide hauek arautze harmonizatuaren mendeko izango ez den kontratazioa arautuko dute, IZENPEko kasuan bereziki. IZENPE SPKLTBaren 13., 14. eta 16. artikuluetan xedatuta dagoenaren mende dago eta abenduaren 19ko Ministerioaren EHA/349/2011 Aginduari egokitu behar zaio (horren bidez, sektore publikoko kontratazioari begira, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera kontratu mota batzuek eta besteek izango dituzten mugak argitaratzen dira).

2011ko abenduaren 2ko L 319 zenbakiko Europako Erkidegoen Aldizkari ofizialean, 2011ko azaroaren 30eko Batzordearen 1251/2011 zenbakiko Erregelamendua (EB) argitaratu zen. Horren bitartez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/17/EE eta 2009/81/EE zuzentarauak aldatu dira, kontratuak esleitzeko prozeduretako aplikazio-atalaseei dagokienez. Erregelamendua agindu horren promulgazioa gomendatzen du aipatutako zuzentaruaren aurretik ezarritakoak aldatzen dituzten atalaseak hobeto ezagutu ahal izateko. Atalase berriak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira aplikagarriak horiengandik eragindako kontratuetan. Horrela, saihestu egingo dira zuzentarauak urratzeko balizko arrazoiak, bereziki dagozkion kontratuak finantzatzeko erabili daitezkeen erkidegoko funtsak aplikatzeari dagokienez.

Kontrataziorako barne-jarraibide hauek arautze harmonizatuaren mendeko izango ez den kontratazioa arautuko dute. Beraz, erakunde kontratatzailea, kontratu mota eta haren zenbatekoa direla eta Europako arautzearen mendeko ez diren kontratuetan izango du eragina. Kontratu horiek SPKLTBaren 191. artikuluan daude barne hartuta, eta horri jarraiki bermatuko dira kontratazioa arautzen duten printzipioen eraginkortasuna, hala nola, publikotasuna, lehia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

SPKLTBaren 191. artikulua xedatutakoa kontuan izanik eta sozietateak aginte esleitzaila duela abiapuntutzat hartuta, eta sektore publikoaren baitakoa dela gogoan hartuta, organo eskudunak kontrataziorako barne-jarraibide batzuk onartuko ditu (aurrerantzean KBJ), Izenperen kontratuzko jarduna arautzeko helburuarekin.



Jarraibide horiek ezinbestean bete beharko dira eta IZENPEren kontratatzailearen profilaren barruan argitaratuko dira ([www.izenpe.com](http://www.izenpe.com)).

## 2- Xedea

Jarraibide hauen bidez, ondorengo printzipioak beteko direla bermatzeko kontratazioarako prozedurak ezarri nahi dira: gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna, lehia eta diskriminaziorik eza. Horiei jarraiki, ekonomikoki onuragarrien diren eskaintzei egingo zaizkie esleipenak. Jarraibideak IZENPEren kontratatzailearen profilaren baitan argitaratuko dira, SPKLTBaren 53. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

## 3- Kontratazioa antolatzeko printzipioak

Honakoak dira barne-jarraibide hauek arautzen duten kontratazioaren printzipioak:

- Publikotasun-printzipioa: IZENPEren kontratuei buruzko informazioa emango duten komunikabide edo hedabide egokiak eta behar bezain eskuragarriak erabiltzean datza, betiere lizitatzailerik izan daitezkeen guztien mesederako.
- Gardentasun-printzipioa: Esleitu aurretik kontratuaren informazioa hedatzearen edo zabaltzearen bidez gauzatuko da. Informazio hori egokia izango da eta horrek aukera eman behar dio lizitatzailerik izan litekeen edozeini lizitazioan parte hartzeko interesa adierazteko. Gainera, modu berean adieraziko zaie gainerako lizitatzailerik ere. Horrek berekin dakar parte-hartzaile guztiek aurrez ezagutu ahal izatea esleitu nahi den kontratuari aplikagarri zaizkion arauak, baita arauak berdin aplikatuko direla ziur izatea ere.
- Konfidentzialtasun-printzipioa: IZENPEk konpromisoa hartzen du izangaiek emandako eta horiek konfidentzialtzat jotako informazioa ez zabaltzeko, betiere hori justifikatzen duten arrazoiak izanez gero, bereziki, sekretu teknikoak edo komertzialak direnean tarteko, baita eskaintzen inguruko bestelako alderdi konfidentzialak ere. Bide beretik, enpresaburuek kontratua gauzatzeko eskuratutako informazio konfidentziala errespetatu beharko dute, informazioa konfidentzialtzat jotzen denean edo bere izaera dela eta konfidentzial gisa erabili behar denean.
- Berdintasun-printzipioa eta diskriminaziorik ezaren printzipioa: Kontratazio-espeditenteak osatuko dituzten agiriak idazteko garaian, IZENPEk ez du diskriminaziorik egingo kontratuaren xedea ezartzerakoan. Beraz, ez du inolako aipamenik egingo jatorrien, marken, patenteen, tipoen edo jatorri edo produkzio zehatzen inguruan, non



eta gisa horretako aipamena ez dagoen justifikatuta eta non eta ez den "baliokide" hitzarekin osatzen (SPKLTBaren 101.8). Bestalde, enpresa hautagaiei ezarritako epeak egokiak izango dira enpresek behar bezalako ebaluazioa egiteko eta eskaintza aurkezteko aukera izan dezaten, eta Europar Batasuneko estatu kideetako enpresei ziurtagiriak, tituluak edo bestelako egiaztagiriak eskatuz gero, tituluak, ziurtagiriak eta diplomak elkarri aitortzeko printzipioaren arabera jardun beharko da. Hornitzaile bat baino gehiago ari badira lehian, guztiek informazio bera eta baldintza berdinetan dutela bermatuko du IZENPEk.

- Lehia-printzipioa: IZENPEK beharrezko neurri osagarriak hartuko ditu lizitatzailerik izan daitezkeen sarbidea eta parte-hartzea errazteko, merkatua lehiakideei irekiz, kontratua ekonomikoki onuragarri den eskaintzari esleitzeko xedearekin. (bitarteko elektronikoen edo telematikoen bidezko oharrak bidaltzea hornitzaile ezagunei edo/eta potentzialei, eta beste batzuk).

#### **4- Kontratazio-espeditentia:**

Kontratazio-prozesuan zehar sortutako agiriek osatuko dute IZENPEren kontratazio-espeditentia, eta espeditentia hori kontratuaren ezaugarrien eta zenbatekoaren arabera zenbakitu eta artxibatuko da.

#### **5- Kontrataziorako barne-jarraibideen mendeko kontratuak**

Kontrataziorako barne-jarraibide hauek IZENPEk horietan barne hartutako muga ekonomikoaren eta prozedurazko mugen baitan egindako kontratuaren aplikatuko dira.

Horietatik kanpo geratuko dira honakoak: SPKLTBaren 4. artikuluko negozio eta harreman juridikoak, arautze harmonizatuaren mendeko diren kontratu eta negozio juridikoak (SPKLTBaren 13. artikulua eta horrekin bat datozenen arabera), eta dagokien sektoreko araudia aplikatuz berariaz bazter utzitako kontratuak eta negozioak, dena delako sektorean aplikagarri den araudiaren arabera egingo direnak.

#### **6- Edukia eta kontratu-motak**

SPKLTBaren aplikazio-esparruari dagokionez, 2.1 artikulua arabera, aipatutako legearen mendeko izango dira legearen 3. artikuluan zerrendatutako entitate eta erakundeek egindako kostubidezko kontratuak, beren nortasun juridikoa edozein izanik ere.

Horretatik kanpo geratuko dira SPKLTBaren 4. artikuluan definitutako negozioak eta kontratuak.



Hortaz, jarraibide hauek IZENPEk egindako kostubidezko kontratuetan izango dira aplikagarri, honakoetan izan ezik:

- SPKLTBaren 4. artikuluan definitutakoetan.
- SPKLTBaren 13. artikuluan eta horrekin bat datozenetan definitutako arautze harmonizatuaren mendeko kontratuetan (horiei SPKLTBaren 190. artikuluan adierazitakoa aplikatuko zaie).
- Lan-kontratuetan eta bekadunekin egindakoetan.
- Aplikagarri den sektoreko araudiak araututako kontratuetan.

#### 6.1- Oinarrizko edukia:

Gutxienez, honako oinarrizko alderdiak hartuko dituzte barne IZENPEk egindako kontratuak: aldeak identifikatzea, kontratua sinatzeko gaitasuna egiaztatzea, kontratuaren xedearen definizioa, aplikagarri den legeriaren aipamena, kontratua osatzen duten agirien zerrenda, prezio zehatza edo hori zehazteko modua, kontratuaren iraupena, prestazioak jasotzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak, ordaintzeko modua, kontratua suntsitzeko kasuak, konfidentzialtasun-betebeharraren inguruko zehaztapenak eta horren hedadura, eta kontratu bakoitzaren berezitasunak direla eta egoki irizten diren bestelakoak, hala badagokio.

#### 6.2- Kontratu-motak

##### 6.2.1- Hornidura-kontratuak

IZENPEk honakoak eskuratzea dutenak helburu:

- Produktu edo ondasun higigarrien erosketak, finantza-errentamendua, edo erosteko aukera berekin dakarren edo ez dakarren errentamendua.

6.2.2. Ordenagailuko programak eskuratzea xede duten kontratuak ez dira hornidura-kontratutzat joko jabetza gorpuzgabeak edota balio negoziagarriak xede dituzten kontratuetan, 6.2.3 ataleko b) hizkian xedatutakoari kalterik egin gabe.

6.2.3 a) Ondasun anitz elkarren segidan eta aleko prezio jakin batean entregatzera bideratutako kontratuak, entregak IZENPEren premien arabera izango direla eta kontratua sinatzeko garaian guztizko zenbateko finkorik ez dutenak.

6.2.3.b) Telekomunikazioko ekipoak eta sistemak eskuratzea eta errentan hartzea helburu duten kontratuak edo informazioa tratatzeko, horretarako gailuak eta programak lortzeko eta azken horiek erabiltzeko eskubidea lagatzeko kontratuak, neurririk egindako ordenagailurako programen kontratuak izan ezik, horiek zerbitzu-kontratutzat joko dira eta.

-6.2.3.c) Fabrikazioko kontratuak, enpresaburuak entregatu beharreko gauza edo gauzak IZENPEk alde aurretik zehaztutako berezitasunen arabera egin behar badira,



nahiz eta IZENPEk betebeharra izan horretarako beharrezko diren materialak, osorik nahiz horietako batzuk, emateko.

#### 6.2.2.- Zerbitzu-kontratuak:

Jardun baten baitan gauzatu beharreko prestazioak ematea helburu duten kontratuak edo obrena edo hornidurarena ez den bestelako emaitza lortzera bideratutakoak. SPKLTBaren II. eranskinean adierazitako kategorietan banatuko dira.

Horiez gain, zerbitzu-kontratutzat joko dira neurrira egindako ordenagailurako programak egitera bideratutako kontratuak.

#### 6.2.3.- Obra kontratuak

Obraren bat egitea edo SPKLTBaren I. eranskinean zerrendatutako lanetakoren bat egitera bideratutakoak dira, baita beste bitartekoren bat dela medio IZENPEren berariazko premiei erantzuteko obra bat egitea dutenak helburu ere. Kontratuak dagokion proiektua idazteko lanak ere hartu ahal izango ditu barne.

Obratzat joko da eraikuntzako edo ingeniari-tza zibileko lan-multzo baten emaitza, bere kasa funtzio ekonomiko edo tekniko izatera bideratutakoa eta ondasun higiezinaren bat duena xede.

## **7- Kontratuaren premia eta egokitasuna.**

SPKLTBaren 22. artikuluan arabera, sektore publikoa osatzen duten erakundeek beren xedek betetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren kontratuak egingo dituzte. Hortaz, hausnartu egin beharko da kontratazio-espeditate bakoitza onartu aurretik, honako alderdien inguruan: kontratuaren xedea, ase nahi diren premiak eta prestazioaren edukia. Baldintza hori betetzeko, IZENPEko zerbitzu edo atalak premien txostena prestatuko du eta kontratazio-organoari emango dio hark onartu eta sina dezan.

## **8- Baldintzak finkatzea.**

Baldintza teknikoak zehazteko garaian, baldintzen agiriak prestatzeko arauak hartuko dira kontuan, SPKLTBaren 116. artikuluan ezarritakoak, hain zuzen ere. Era berean, SPKLTBaren 115. artikuluan administrazio-klausula partikularrak arautzen ditu. IZENPEren kasuan, Baldintza Partikularren Agiriak esaten zaie.

## **9- Kontratazio-organoak**



IZENPEko kontratazio-organoak izango dira: Izenpeko Administrazio Kontseilua, organo kolegiatu gisa, 2009ko maiatzaren 8an azkenezko berritutako Estatutuetako 17. artikuluari jarraiki (Manuel María Rueda Díaz de Rábago notario jaunaren aurrean aurkeztutako eskritura publikoa), eta, Zuzendaritza Nagusia, pertsona bakarreko organo gisa, Manuel María Rueda Díaz de Rábago notario jaunaren aurrean bi mila eta hamarreko martxoaren hamazazpiko eskritura publiko bidez (hiru ehun mila berrehun eta hogeita hamabost protokolo zenbakia) emandako ahalorde-eskriturari jarraiki. Ahalordeak behar bezala erregistratuta daude Arabako Merkataritza Erregistroan, eta indarrean daude, haietan ezarritako mugen barruan.

#### **10- IZENPErekin kontratatzeko gaitasuna**

IZENPErekin kontratatzeko, ezinbestekoa izango da jarduteko gaitasun osoa izatea eta kontratuaren xedearekin harreman zuzena izatea pertsona fisiko nahiz juridikoek, espainiarrek zein atzerrikoek, betiere horien estatutuen edo eratze-arauen arabera. Kaudimena badutela egiaztatu beharko dute, baita kontratua behar bezala gauzatzeko elementu pertsonal eta material nahikoa duen erakundea dutela ere. Horrezaz gain, berariaz egiaztatu beharko da egunera dagoela zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren ingurukoetan, horretarako dagokion ogasunak (Estatuko Ogasunak edo foru-ogasunek) berariaz egindako administrazio-egiaztagirien edo egiaztagirien bidez. Gainera, kontratu bakoitzean zehaztutako kaudimen teknikoa edo profesionala eta kaudimen ekonomiko edo finantzarioa egiaztatu beharko dute enpresaburuek.

- Jarduteko gaitasuna: IZENPErekin kontratatzeko bere burua behartzeko gaitasun orokorra egiaztatu beharko da dagokion erregistroan izena emandako eskrituraren edo eratze-agiriaren bidez, dena delako nortasun juridikoaren arabera. Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako enpresen kasuan, horien egoitzari dagokion estatuko legeriaren arabera jokatu da, edo zinpeko aitortpena edo aplikagarri diren Batasuneko xedapenek ezarritakoaren arabera egiaztagirien bat aurkeztu beharko da. Nortasun juridikoaren izenean kontratatzen duen pertsona juridikoaren ordezkari dagokionez, pertsona horrek duen lege-ordezkaritza edo, borondatezko ahalordedunen kasuan, bere alde emandako ahala hartuko da kontuan. (SPKLTBaren 72. artikulua xedatutakoari jarraiki).
- Gaitasun teknikoa edo profesionala: SPKLTBaren 77., 78. eta 79. artikuluek xedatutakoari jarraiki, kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak kontratu mota eta kontratazio-espeditente bakoitzean ezarriko dira.
- Gaitasun ekonomiko edo finantzarioa. IZENPEk kontratu bakoitzean ezarriko ditu kaudimen ekonomiko edo finantzarioa egiaztatzeko moduak, kontratu bakoitzaren ezaugarrien arabera, SPKLTBaren 75. artikuluan ezarritako eskakizunak kontuan izanik, besteak beste.





## **11- Kontratazioaren kudeaketa arautze harmonizatuaren mendeko ez diren IZENPEren kontratueterako. Zenbatekoak eta prozedurak.**

### **A- 50.000 euro baino gutxiagoko kontratuak**

Honakoak dira erabili ahal izango diren prozedurak:

A-11.1 Berrogeita hamar mila euro baino gutxiagoko prozedura orokorra: Horrelako kontratu motak egiteko prozedura orokorrean edo lehentasunezkoan, gutxienez hiru eskaintza-prozedura garatuko dira (ahal bada). IZENPEk hiru eskaintza edo gehiago eskatu ahal izango ditu, betiere horretarako aukerarik bada. Horretarako prozedura negoziatuaren arauak jarraitu ahal izango ditu, publikotasun-eskakizunik gabe, eta ekonomikoki onuragarrien denari esleitu ahal izango dio. Prozedura horretan, baldintza tekniko eta juridikoen agiriak prestatuko dira zerbitzuak edota hornidurak emateko modua arautzeko.

#### A- 11.2 Berriazko prozedura, zuzeneko esleipena:

Kontratuaren baldintza edo ezaugarri bereziak direla eta, IZENPEk beharrezko ikusten badu, gisa honetako kontratuetan zuzenean esleituko zaio jarduteko gaitasuna duen eta prestazioa gauzatzeko beharrezko lanbide-gaikuntza duen edozein enpresabururi. Eskaintza eskatzen zaio eta ondoren eskaria helarazten zaio administrazio-atalari, bertan zehazteko IZENPEren kontratazioaren baldintza orokorrak.

Zuzeneko esleipenaren kasuan, ez da baldintzen agiririk egin beharko eta ez da kontratu bidez formalizatu beharko. Alabaina, erlazio juridikoa arautuko duen kontratua egingo da, hori egokia litzatekeela uste badu IZENPEk.

Prozedura honetan ezinbestekoa izango da gastua onartzea eta ondoren dagokion faktura egitea.

### **B- 50.000 euro baino gehiagoko kontratuak, betiere horien zenbatekoa arautze harmonizatuaren mendeko diren kontratueterako mugena baino txikiagoa bada.**

Jarraibide hauetan eta SPKLTBan ezarritakoa kontuan izanik, berezi egingo dira 50.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez duten erosketak eta prestazioak arautzeko kontratuak eta 50.000 euroko zenbatekoa gainditzen dutenak, arautze harmonizatuaren mendeko diren kontratuen muga gainditu gabe betiere (aldizka, Europa mailan ezarritako mugak aplikatzen dituen Ministerioaren Agindua argitaratzen da).

Nolanahi ere, kontratu horien esleipena publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen mendekoa izango da.

Honakoak dira erabili ahal izango diren prozedurak:



### B11.1- Prozedura orokorra edo irekia

Interesa duen edozein enpresaburuk aurkeztu ahal izango du eskaintza prozedura honen bidez.

B11.1.1- *Kontratatzeko premia eta egokitasuna.* Kontratatzeko premia hautematen duen IZENPEko atalak premia horren inguruko txostena egingo du kontratuaren sorburu izan den ataletik abiatuta. Bertan zehaztuko dira kontratuaren xedea, ase nahi diren premiak eta prestazioaren edukia laburtuta.

B11.1.2- *Premia txostena onartzea:* Txosten hori ataleko arduradunak onartu beharko du eta kontratazio-organo eskudunaren oniritzia beharko du.

B11.1.3.- *Baldintzen agiriak egin:*

- Kontratuaren ardura izango duen atalak baldintza teknikoaren agiria prestatuko du (BTA). SPKLTBaren 117. artikulua xedatutakoa izango da kontuan baldintza teknikoak ezartzeko arauari dagokienez.

- Atal juridikoak prestatuko du baldintza partikularren agiria eta bertan ezarriko dira kontratuaren oinarriko ezaugarriak. Indarrean dagoen legeriak ezarritako xedapenak aplikatuko dira (osagarri modura, mota guztietako administrazio-kontratuarentako administrazio-klausula partikular komunen agirien oinarriko edukiaren inguruan Administrazio Kontrataziorako Aholku Batzordeak egindako gomendioa aplikatu ahal izango da.).

B11.1.4.- *IZENPEren kontratugilearen profilean argitaratzea.* Argitaratu ondoren, baldintza partikularren agirian ezarritako epea aplikatuko da eskaintzak jasotzeko (epe hori, oro har, ez da izango 15 egun baino gutxiagokoa, presako prozeduren kasuan izan ezik. Horrelakoetan, justifikatuta badago, epea murriztu ahal izango da). Kontratzeko xedearen erakundeak erabakiko du, kontratuaren ezaugarrien arabera, publikotasuna beste bideren batetik emateko premia.

B11.1.5. *IZENPEn eskaintzak jasotzea:* Administrazio Atalak erregistratuko ditu Atal Juridikoari jakinarazita. Bidalketak hartu izanaren adierazpenarekin bidaliko dira, horiek posta arruntaren bidez nahiz posta elektronikoz egin.

B11.1.6- *Eskaintzak ireki eta baloratzea:* Eskaintza jasotzeko finkatutako epea amaituta, kontratuaren ardura izango duen atalak, Administrazio Ataleko arduradunak eta atal juridikoak eskaintzak irekiko dituzte eta balorazioak egingo dituzte, agiritan ezarritako irizpideak aplikatuz.



B11.1.6.a) Lehenik eta behin, Atal Juridikoak (jarduteko ahalmena) eta Kontratuaren ardura izango duen atalak (gaitasun tekniko-profesionala eta ekonomikoa eta finantzarioa) *jarduteko ahalmena jasotzen duen gutun-azala edo euskarri elektronikoa aurkeztutako fitxategia* ireki eta baloratuko dute, baldintzen agirietan ezarritako irizpideei jarraiki. Lizitatzailleek bidalitako agirien inguruan zalantzarik balego, Atal Juridikoak dagozkion kontsultak eta argibideak prestatuko ditu. Zalantza eta argibide eskaera horiek IZENPEko Administrazio sailetik bidaliko dira. Era berean, fase hau gainditu ez duten lizitatzailleei horren berri emango zaie, eta ez dira irekiko eskaintza teknikoa eta ekonomikoa jasotzen duten gutun-azalak edota fitxategiak.

B11.1.6.b) Ondoren, *eskaintza teknikoa barne hartzen duen gutun-azala* irekiko da. Kontratuaren ardura izango duen atal teknikoak eskaintzak baloratuko ditu eta dagozkien txostenak jaulkiko ditu. Lizitatzailleek bidalitako agirien inguruan zalantzarik balego, Atal Teknikoak dagozkion kontsultak eta argibideak prestatuko ditu. Zalantza eta argibide eskaera horiek IZENPEko Administrazio Ataletik bidaliko dira. Era berean, fase hau gainditu ez duten lizitatzailleei horren berri emango zaie, eta ez da eskaintza ekonomikoa irekiko.

B11.1.6.c) Azkenik, *eskaintza ekonomikoa irekiko da*. Kontratuaren ardura izango duen atal teknikoak eskaintzak baloratuko ditu eta dagozkien txostenak jaulkiko ditu. Lizitatzailleek bidalitako agirien inguruan zalantzarik balego, Atal Teknikoak dagozkion kontsultak eta argibideak prestatuko ditu. Zalantza eta argibide eskaera horiek IZENPEko Administrazio sailetik bidaliko dira. Era berean, fase hau gainditu ez duten lizitatzailleei eskaintza baztertzeko arrazoiak jakinaraziko zaizkie: kontratuaren aurrekontua gainditu izana, eskatutakoari egokitzen ez den eskaintza aurkeztu izana, eta SPKLTBean edota baldintzen agirietan ezarritako beste baldintza batzuk bete ez izana.

B11.1.7. Kontratuaren ardura izango duen atalak *esleipen-proposamena* egingo du. Kontratazio-organo eskudunak onartu beharko du proposamen hori. Esleipena beti egingo zaio ekonomikoki onuragarrien den eskaintzari, balioztatzeko irizpide bat baino gehiago dagoen kasuetan. Eskaintza bakar batek ere ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, IZENPEk hutsik utzi ahal izango du lizitazioa (betiere eskaintza bakar bat ere ezin bada onargarritzat jo baldintzen agirian ezarritako irizpideen arabera).

B11.1.8. *Esleipena Administrazio Atalak jakinaraziko du*, ahal dela modu elektronikoa. Elektronikoki sinatutako esleipena jakinarazteko edo esleipena lortu ez izana jakinarazteko komunikazioa, IZENPEk jaulkitako erakunde-ziurtagiriaren bidez eta hartu izanaren adierazpenarekin. Jakinarazpena jaso izanaren inguruan



zalantzaren bat bada, posta arruntaren bidez bidaliko da jakinarazpena, lizitatuile guztiei jakinarazi zaiela ziurtatzeko (posta ziurtatua eta hartu izanaren adierazpenarekin).

B11.1.9.- IZENPEren *kontratatuilearen profilean argitaratuko da* kontratuaren esleipena. Hori Marketing Atalari jakinarazi beharko zaio, berak web-orrian barne har dezan. (kontratatuilearen profilean, historialaren eta esleipenen eremuetan).

B11.1.10.- *Kontratua egitea eta formalizatzea*: Atal Juridikoak kontratua egingo du zerbitzu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Hori Zuzendaritza Nagusiari bidaliko zaio, oniritzia eman eta sina dezan. Ondoren esleipendunari bidaliko zaio, sinatuta itzul dezan. Aurreko izapidea eginda, artxibatu egingo da, eta Administrazio Atalari emango zaio horren berri.

B11.1.11.- *Ebaluazioa eta jarraipena*: Kontratuaren ardura duen atalak egingo du kontratuaren inguruko jarraipena eta kontrola. Amaitu ondoren Administrazio Atalari jakinaraziko zaio kontratuaren xede den zerbitzua erabat jaso dutela.

## B11.2.- Prozedura negoziatua.

B11.2.1.- *Negoziazioaren fasea*: Prozesua hasteko hainbat hautagairi gonbidapena bidaltzea du ezaugarri. Kontsulta egiten zaie hautagai horiei eta horiekin negoziatzen dira kontratuaren baldintzak.

B11.2.1. a)- *Hasierako harremanen fasea*: Prozedura negoziatuaren bidez gutxienez hiru enpresabururi -horretarako aukerarik bada- parte hartzeko gonbitea eginez hasten da aldi hau.

Gonbitea egiteko enpresaburuak aukeratzeko irizpide objektiboak eta diskriminaziorik gabek erabiliko dira.

B11.2.1. b)- *Negoziazioaren fasea*: Gonbidatutako enpresaburuekin negoziatzeko irizpideak ezarriko ditu IZENPEk.

B11.2.2. *IZENPEn eskaintzak jasotzea*: Administrazio Atalak erregistratuko ditu Atal Juridikoari jakinarazita. Bidalketak hartu izanaren adierazpenarekin bidaliko dira, horiek posta arruntaren bidez nahiz posta elektronikoz egin.

B11.2.3.- *Eskaintzak ireki eta baloratzea*: Eskaintza jasotzeko finkatutako epea amaituta, kontratuaren ardura izango duen atalak, Administrazio Ataleko

arduradunak eta atal juridikoak eskaintzak irekiko dituzte eta balorazioak egingo dituzte, agirietan ezarritako irizpideak aplikatuz.

B11.2.3.a) Lehenik eta behin, atal juridikoak (jarduteko ahalmena) eta Kontratuaren ardura izango duen atalak (gaitasun tekniko-profesionala eta ekonomikoa eta finantzarioa) *jarduteko ahalmena jasotzen duen gutun-azala edo euskarri elektronikoa aurkeztutako fitxategia* ireki eta baloratuko dute, baldintzen agirietan ezarritako irizpideei jarraiki. Lizitatzailleek bidalitako agirien inguruan zalantzarik balego, Atal Juridikoak dagozkion kontsultak eta argibideak prestatuko ditu. Zalantza eta argibide eskaera horiek IZENPEko Administrazio sailetik bidaliko dira. Era berean, fase hau gainditu ez duten lizitatzaillei horren berri emango zaie, eta ez dira irekiko eskaintza teknikoa eta ekonomikoa jasotzen duten gutun-azalak edota fitxategiak.

B11.2.3.b) Ondoren, *eskaintza teknikoa barne hartzen duen gutun-azala irekiko* da. Kontratuaren ardura izango duen arlo teknikoak eskaintzak baloratuko ditu eta dagozkien txostenak jaulkiko ditu.

Lizitatzailleek bidalitako agirien inguruan zalantzarik balego, Atal Teknikoak dagozkion kontsultak eta argibideak prestatuko ditu. Zalantza eta argibide eskaera horiek IZENPEko Administrazio sailetik bidaliko dira. Era berean, fase hau gainditu ez duten lizitatzaillei horren berri emango zaie, eta ez da eskaintza ekonomikoa irekiko.

B11.2.3.c) Azkenik, *eskaintza ekonomikoa irekiko* da. Kontratuaren ardura izango duen arlo teknikoak eskaintzak baloratuko ditu eta dagozkien txostenak jaulkiko ditu.

Lizitatzailleek bidalitako agirien inguruan zalantzarik balego, Atal Teknikoak dagozkion kontsultak eta argibideak prestatuko ditu. Zalantza eta argibide eskaera horiek IZENPEko Administrazio sailetik bidaliko dira. Era berean, fase hau gainditu ez duten lizitatzaillei eskaintza baztertzeko arrazoiak jakinaraziko zaizkie: kontratuaren aurrekontua gainditu izana, eskatutakoari egokitzen ez den eskaintza aurkeztu izana, eta SPKLTBean edota baldintzen agirietan ezarritako beste baldintza batzuk bete ez izana.

B11.2.4. Kontratuaren ardura izango duen atalak *esleipen-proposamena* egingo du. Kontratazio-organo eskudunak onartu beharko du proposamen hori. Esleipena beti egingo zaio ekonomikoki onuragarrien den eskaintzari, balioztatzeko irizpide bat baino gehiago dagoen kasuetan. Eskaintza bakar batek ere ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, IZENPEk hutsik utzi ahal izango du lizitazioa (betiere eskaintza bakar bat ere ezin bada onargarritzat jo baldintzen agirian ezarritako irizpideen arabera).



B11.2.5. *Esleipena Administrazio Atalak jakinaraziko du*, ahal dela modu elektronikoa. Elektronikoki sinatutako esleipena jakinarazteko edo esleipena lortu ez izana jakinarazteko komunikazioa, IZENPEk jaulkitako erakunde-ziurtagiriaren bidez eta hartu izanaren adierazpenarekin. Jakinarazpena jaso izanaren inguruan zalantzaren bat bada, posta arruntaren bidez bidaliko da jakinarazpena, lizitatuzaile guztiei jakinarazi zaiela ziurtatzeko (posta ziurtatua eta hartu izanaren adierazpenarekin).

B11.2.6 IZENPEren *kontratatuzailearen profilean* argitaratuko da kontratuaren esleipena. Hori Marketing Atalari jakinarazi beharko zaio, berak web-orrian barne har dezan. (kontratatuzailearen profilean, historialaren eta esleipenen eremuetan).

B11.2.7 Kontratua egitea eta formalizatzea: Arlo Juridikoak kontratua egingo du zerbitzu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Hori Zuzendaritza Nagusiari bidaliko zaio, oniritzia eman eta sina dezan. Ondoren esleipendunari bidaliko zaio, sinatuta itzul dezan. Aurreko izapidea eginga, artxibatu egingo da, eta Administrazio Atalari emango zaio horren berri.

B11.12.8. *Ebaluazioa eta jarraipena*: Kontratuaren ardura duen atalak egingo du kontratuaren inguruko jarraipena eta kontrola. Amaitu ondoren Administrazio Atalari jakinaraziko zaio kontratuaren xede den zerbitzua erabat jaso dutela.

## **12- Bermeak**

Kontratu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, IZENPEk bermea eskatu ahal izango die lizitatuzaileei, eskaintzari esleipenaren unera arte eutsiko diotela ziurtatu ahal izateko. Horrezaz gain, bermea eskatu ahal izango dio esleipendunari, kontratuaren xedea beteko duela ziurtatu ahal izateko modu gisa. Bermearen zenbatekoa kontratuaren arabera izango da. Hala badagokio, SPKLTBan (95. artikuluan eta ondorengoetan) ezarritako bermeen arautzea aplikatuko da.

## **13- IZENPEren hornitzaileen zerrenda**

IZENPEk hornitzaileak erregistratzeko sistema bat sortu eta erabili ahal izango du. Horretarako, IZENPEk hornitzaileen lan-poltsa sortu ahal izango du, irekia eta gardena. Erregistro horretan interesa duen edozein enpresaburuk eman ahal izango du izena. Horretarako prozedura arina eta berdintasunezkoa izango da, kontratuzailearen profilean argitaratuko da, kontrataziorako jarraibide hauetako 3. puntuan adierazitako printzipioak errespetatuz.



Hornitzaile-motaren araberako poltsak osatuko dira, eta horietan edozein unetan sartu ahal izango dute beste hornitzaile batzuek.

#### **14.- Eusko Jaurlaritzaren eskaintza aplikazioa erabiltzea.**

Eusko Jaurlaritzaren eskaintza elektronikoko aplikazioa erabiltzea egoki ikusten den kasuetan, honako jarraibide hauek bete beharko dira eskaintza, kontratazioa eta jakinarazpen elektronikoa egiteko:

**1. Kontratazio-prozeduraren izapidetzeak (dokumentuak igortzea, kontratua sinatzea, eta abar) telematika bidez egiteko baldintzak.**

**a. Interesatuta dagoen enpresaren baldintzak:**

- i. Alta emanda egotea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean indarrean dagoen ziurtagiria izatea. "Enpresak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuak ez badaude, kontratazio elektronikorako "Aldi baterako Gaitzeko Modulua" erabiliko dute, [www.contratacion.info](http://www.contratacion.info) erakunde-mailako web-aren bitartez eskura dezaketena."
- ii. «Eskaintza elektronikoa - Eskaintza elektronikoa erabiltzeko pertsona ahaldunen zerrenda» izenekoan alta ematea. «Aplikazioa kontsultatzeko pertsona ahaldunen eta baimenduen zerrenda» izeneko formulario baten bitartez gauzatzen da alta.
- iii. Eskaintzaren diru-kopuruaren arabera, pertsona eskaintzaileak ahalorde askietsia beharko du eskaintza elektronikoki sinatzeko.
- iv. Pertsona eskaintzaileak IZENPE, SAK emandako aitortutako ziurtagiri elektronikoa izan behar du, ondoren aipatuko dugun edozein modutan: Herritar-ziurtagiria, Entitate-ziurtagiria, Ona eta NAN-e.

**b. Enpresak erabili beharreko dokumentu-formaturako eta ekipo informatikorako baldintzak:**

- i. Internet Explorer nabigatzailea duen Windows edo Windows-NT sistema eragilea daraman PCa izatea.
- ii. PCan IZENPE, SAREN sinadura identifikatzeko softwarea instalatua izatea. Software hori IZENPEren [www.izenpe.com](http://www.izenpe.com) web orrian eskuragarri dago.



- iii. PCra IZENPEren Ziurtagiri Nagusia deskargatu izana.
- iv. IZENPEren txartel-irakurgailua PCra konektatua izatea.
- v. IZENPEren sinadura-froga bat egin izana.
- vi. Norberaren Interneteko nabigatzailean konfiantzako bi gune alta ematea: «euskadi.net» eta «ej-gv.net».
- vii. Norberaren Internet Explorer nabigatzailean pop-upak gaitzea.
- viii. «Real Player» ikusteko programa izatea gutun-azal zigilatuak irekitzeko ekitaldia ikusteko.
- ix. Honako luzapen hauek dituzten informatikako dokumentuak irakurri eta bideratzea bakarrik bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .pdf, .rtf., .sxw, .abw, .jpg, .bmp, .tiff, .zip eta .7z. Birusen arriskua ahalik eta gehien murrizteko, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatutan bidaltzea gomendatzen da.

## **2. Kontratazio elektronikoko sisteman sartzeko modua:**

Sistema erabili ahal izateko Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren atari nagusian – euskadi.net– sartu beharko da edo zuzenean bertan aurkituko dugun eduki espezifikora joan beharko da honako helbide honetatik: "[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info) edo [www.euskadi.net/contratacion](http://www.euskadi.net/contratacion)"

## **3. Kontratazio elektronikoko sistemaren ezaugarriak:**

- a. Eusko Jaurlaritzak erabilitako informatikako aplikazioa J2EE teknologian eta 3 geruzako arkitektura teknikoan oinarritzen da, eta SSL protokoloa duen Web zerbitzari segurua, BEA weblogic 81 aplikazioen zerbitzaria eta Oracle 8i datu-baseko zerbitzaria ditu. Horiek guztiak 1. bertsioko Unix Sun Solaris 2.8 sistema eragilearen pean, eta LDAP protokoloan eta X509V3 (64. oinarria) ziurtagiri digital bidez identifikatutako sinadura elektronikoa oinarritua dago. Ziurtagiri hori IZENPE, SAren gako publikoko azpiegiturak –PKI– erabiltzen du.
- b. Eskaintzen bortxaezintasuna ziurtatzeko, applet sinatu bat deskargatu eta gauzatzen da. Applet hori secrets DLL.dll liburutegian oinarritzen da. Liburutegiak eskaintzak zatitu, kodetu eta bidaltzen ditu, bai eta ondoren deszifratu eta berriz osatu ere.

## **4. Kontratazio elektronikoko sistema erabiltzearen abantailak:**

- a. Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Aginduan jasotako izapideetan bitarteko telematikoak erabilia, organo eskudunaren eskuduntza gauzatzea eta identifikazioa bermatzen dira, bai eta egindako dokumentuen





egiazkotasuna, osotasuna eta kontserbazioa ere. Izapidetze telematikoa onartutako sinadura elektronikoa erabiltzen da.

- b. Egindako izapidetzeen kontsulta telematikoa egin daiteke izapidetze telematiko bidez.
- c. Eskaintza elektronikoko sistemaren bidez bermatzen da eskaintza egiten duenak bidalitako eskaintzak adierazi eta erregistratzea edukia ezagutzeko aukerarik gabe. Edukia lan horretarako legearen arabera baimendutako pertsonak eta bere garaian bakarrik ezagutuko dute. Helburu horrekin, erabilitako sistema informatikoaren bidez bermatzen da eskaintzak kodetuak eta zatituak igortzea espedientea bideratzen duen unitatera. Eskaintzak kodetzen dira kontratazio-mahaia osatzen dutenen gako publikoekin alderatuta. Aplikazioaren bitartez, gako horiek lantzen ari diren espediente zehatzean bakarrik daude eskuragarri. Bestalde, berriz osatu eta deszifratzeko, legeak agindutako kontratazio-mahaiko kideen quorum-ak egon behar du zabaltze-ekitaldian bakoitzaren aitortutako sinadura elektronikoko ziurtagiriarekin.

#### **5. Gertakariak sistemaren erabileran:**

- a. Formatu elektronikoa, informatikoa edo telematikoa sinatutako jakinarazpenak, idatziak edo dokumentuak jasotzen badira, eta, aldi berean, paperean ere jasotzen badira, bertsio elektronikoko, informatikoko edo telematikoko bertsioa bakarrik hartuko da kontuan.
- b. Honako luzapen hauek dituzten informatikako dokumentuak irakurri eta bideratzea bakarrik bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .pdf, .rtf, .sxw, .abw, .jpg, .bmp, .tiff, .zip eta .7z.
- c. Birusak sistemaren eraginkortasunean egin ditzakeen kalteak ahalik eta gehien murrizteko, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatutan bidaltzea gomendatzen da.
- d. Irakurtzea zaildu edo eragotziko duten birusik gabe bidaliko dira eskaintzak, eta horren erantzulea eskaintzailea izango da.
- e. Dena den, eskaintzak birusa izateagatik bakarrik ez da lehiaketatik kanpo utziko, betiere eskaintzaren edukia irakur badaiteke.
- f. Eskaintza batean telematikoki parte hartzeko aukera iragarri arren, kontratazio-mahaiak, eta bestela kontratazio-organoak, eskaintza telematikoak aurkezteko aukera aldi baterako balio gabe utz dezake, arazo tekniko ondoz bide horretatik eskaintza ezin denean egin.
- g. Kasu honetan, teknikoki ahal den neurrian, egoeraren berri espresuki ohartaraziko da, eskaintza elektronikoko Web orrian mezu bat jarrita.



## JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOA

Jakinarazpen elektronikoko sisteman alta emateko, honako edozein bide erabil daiteke:

1. "Eskaintza elektronikoa" izeneko informatikako aplikazio bidez, honako Web orrian: "[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info) edo [www.euskadi.net/contratacion](http://www.euskadi.net/contratacion)"
2. Kontratisten Erregistro Ofizialean "Eskaintza elektronikoa - komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak jasotzeko baimena duten pertsonen zerrenda" izeneko inprimakia aurkeztuta. Inprimakia honako modu hauetara eskura daiteke:
  - a) "Kontratisten Erregistro Ofizialaren bertsio telematikoa erabilia eta [www.contratacion.info](http://www.contratacion.info) erakunde-mailako Web-aren bitartez eskuratuta."
  - b) Eusko Jaurlaritzaren e-Kontratazio Sistemaren gainean informazioak eskuratzeko Interneteko helbideen bidez deskargatuta: "www.contratacion.info" edo "www.euskadi.net/contratacion".
  - c) Kontratisten Erregistro Ofizialaren erakusmahaian eskatuta.

Jakinarazpen elektronikoa erabiltzeko, kasurako emango den helbide elektronikoki bat identifikatu edo onartuta, jakinarazteko bitarteko hori lehentasuneko dela espresuki adierazi edo onartu beharko da.

Jakinarazpen elektronikoa gauzatu edo atzera bota dela ulertuko da, interesdunak elektronikoki onartu edo atzera botatzen duela sinatzen duenean. Halaber, atzera bota dela ere uler daiteke, helbide elektronikoki jakinarazpena jaso dela ezagututa, jakinarazpenean sartu gabe hamar egun natural igaro ondoren, betiere ofizioz edo hartzaileak eskatuta jakinarazpenean sartzeko aukera tekniko edo materialik ez dagoela egiaztatzen ez bada. Helburu horiekin, datu-basean gordeko da dagokion helbide elektronikoki interesdunak jakinarazpena noiztik duen eskuragarri. Eta hala badagokio, interesduna jakinarazpenean sartzen den eguna eta ordua ere adieraziko dira.

### 15- Kontratazioa arrazionalizatzeko sistemak.

SPKLTBaren 194. artikuluetan eta ondorengoetan barne hartutako kontrataziorako sistema dinamikoen arautze berria aplikatuz, prozedura hauxe erabili ahal izango dugu, esparru-akordioa izena duena:

- Esparru-akordioaren kontzeptua:  
IZENPEko kontratazio-organo eskudunak esparru-akordioak egin ahal izango ditu enpresaburu batekin edo batzuekin, aldi jakin batean esleituko diren kontratuek izan beharreko baldintzak finkatzeko helburuarekin.

Akordio horiek hainbat enpresabururekin egiten badira, gutxienez hiru izan beharko dute, betiere hautatzeko irizpideak betetzen dituzten interesdunen edo esleitzeko irizpideei erantzuten dieten eskaintza onargarrien kopurua nahikoa bada.

Akordio horiek ez dute lau urte baino gehiago iraungo, salbuespen gisako eta behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

- Prozedura:

SPKLTBaren II. liburuko I. kapituluko I. tituluko arauak aplikatuko dira.

Kontratatzailaren profilean argitaratuko da, eta gehienez ere 48 eguneko epean, baita BOEn edo dagozkien autonomia-erkidegoetako edo probintzietako aldizkari ofizialetan ere. Arautze harmonizatuaren mendeko kontratuen kasuan, kontratua sinatu eta berrogeita zortzi orduko epean bidaliko da dagokion iragarkia EBAOra eta BOEn ere argitaratuko da.

- Esleipena:

Esparru-akordioan oinarritutako kontratuak kontratazio-organoen eta hasiera batean bertako zati izan ziren enpresen artean bakarrik egin ahal izango dira. Aldeek ezingo dute inoiz aldaketa nabarmenik egin akordioan finkatu ziren baldintzetan.

- ✓ Akordioa enpresaburu bakarrarekin eginez gero, horretan oinarritutako kontratuak akordioan ezarritakoaren arabera esleituko dira. IZENPEK idatziz egin ahal izango dio kontsulta enpresaburuari bere eskaintza osatu behar duela iritziz gero.
- ✓ Akordioa hainbat enpresabururekin eginez gero, bi kasu bereiziko ditugu:
  - Baldintza guztiak esparru-akordioan finkatuta daudenean: Esleipena akordioan bertan ezarritako baldintzak aplikatuz egingo da eta ez da premiarik izango aldeei beste lizitazio baterako deia egitea.
  - Baldintza guztiak esparru-akordioan finkatuta ez daudenean: Beste lizitazio bat egin beharko da, honako prozedurari jarraiki:
    - ✓ Idatziz egingo zaie kontsulta kontratuaren xedea gauzatzeko gai diren enpresa guztiei, kontratu bakoitzaren kasuan. Eskaintzak jasotzeko behar adinako epea ezarriko da eta eskaintza horiek idatziz aurkeztuko dituzte. Horien edukia konfidentziala izango da eskaintza irekitzeko unea iritsi arte. Kontratua eskaintzarik onenari esleituko zaio. Prozedura honek ez du aukerarik emango kontratuaren baldintzak negoziatzeko.

Bide beretik, kontratatze sistema dinamiko deiturikoak, SPKLTBaren 199 eta 202 arteko artikuluetan araututakoak, bideratzea erabaki ahal izango du IZENPEK.

## 16- Kontratuen izaera juridikoa



SPKLTBaren 20.1 artikuluaaren arabera, kontratu pribatuak dira administrazio publiko ez diren sektore publikoko erakundeen artean egindako kontratuak. Hortaz, IZENPEk egindako kontratuak kontratu pribatutzat joko dira eta kontratu horiek zuzenbide pribatua izango dute oinarri, baita arautze harmonizatuaren mendeko ez diren kontratuen arautzea ere, SPKLTBaren arabera. Aipatutako lege horretako I. liburuko arauak izango dira aplikagarri, sektore publikoko aginte esleitzailerak izaki. Kontratu pribatuak prestatzeko eta esleitzeko garaian, SPKLTBaren eta hori garatzen duen araudiaren arabera jardungo da. Kontratu horien ondorioei eta suntsitzei dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak jarraituko zaie, eta osagarri gisa, zuzenbide administratiboko arauak aplikatuko dira, hala badagokio.

#### 17- Jakinarazteko arauak

- Informazioa jasotzea: sarrera-erregistroa. zk. - e-artxiboak / papera
- Bidalketak eta jakinarazpenak: irteera-erregistroa. zk. - e-artxiboak / papera
  - e-postako bidalketak
  - Posta arrunteko bidalketak
  - Bestelakoak
- Helbideak: IZENPEren kontratugilearen profilean ezarritakoak.
  - Posta arruntaren bidez jasotzeko:  
IZENPE S.A.ko Administrazio Atala  
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 1. solairua  
01008 Vitoria-Gasteiz
- Posta elektronikoaren bidez jasotzeko: [info@izenpe.com](mailto:info@izenpe.com) edo agirian zehazten den posta elektronikoan.

#### 18- Kontratatzailearen profila

Gardentasun- eta publikotasun-irizpideak aplikatzen direla bermatzeko eta SPKLTBaren 53. artikuluan ezarritakoa jarraiki, IZENPEk internet bidez emango du kontratazioaren publikotasunaren berri, publikotasuna emateko bestelako bideak erabiltzeko aukera ere izango duen arren. Hortaz, IZENPEren web-orrian, [www.izenpe.com](http://www.izenpe.com), jasoko da kontratuzko jarduerari buruzko informazioa, baita egingo diren kontratazioen aurretiko oharra, uneko lizitazioak eta kontratuen historikoa ere. Era berean, kontratazioarako barne-jarraibide hauek ere edozein interesdunen eskura egongo dira, kontratazioarako prozeduren berri emateko helburuarekin.



Horrez gain, berrogeita hamar mila euroko zenbatekoa gainditzen duten kontratazio-espeditenteak argitaratuko dira, prozedura ireki bidez, Eusko Jaurlaritzaren kontratatzailearen profilean.

### **19- Presako prozedura**

Arrazoitu ondoren IZENPEko kontratazio-organoaren iritziz presako egoera denean, eskaintzak aurkezteko, publikotasuna emateko eta kontratua esleitzeko epeak murriztu ahal izango dira. Horrez gain, lanak egiten eta kontratua gauzatzen hasteko baimena eman ahal izango da, lan horien presa kontuan izanik, esleipena egin ondoren, nahiz eta ordurako ez egin kontratua formalizatzeko tramiteak, SPKLTBan ezarritakoari jarraiki.

### **20- Kontrataziorako barne-jarraibideak aldatzea**

IZENPEko kontratazio-organo eskudunak du IZENPEren kontrataziorako barne-jarraibideak onartzeko ahalmena. Onartutako aldaketa IZENPEren kontratatzailearen profilean hartu beharko dira barne, horrela bermatuko baita horien publikotasun egokia.

### **21- Kontrataziorako barne-jarraibideen indarraldia**

KBJak IZENPEko Administrazio Kontseiluak onartzen dituen unetik izango dira aplikagarriak, eta indarrean egongo dira Kontrataziorako Barne Jarraibide berriak jasotzen dituen testu berri bat onartzen den arte. KBJak IZENPEren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

### **22- Jurisdikzio eskuduna**

Kontrataziorako barne-jarraibide hauek kontuan izanik araututako kontratuetatik eratorritako gatazkak eta auziak ebazteko jurisdikzio eskuduna zibila izango da, IZENPEren egoitza sozialarena.



Jarraibide horiek ezinbestean bete beharko dira eta IZENPEren kontratatzailearen profilaren baitan argitaratuko dira ([www.izenpe.com](http://www.izenpe.com)).

“Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SA” enpresaren Administrazio Kontseiluko kideek administrazio publikoa ez den baina aginte esleitzaila duen sozietatearentzako kontratazioarako barne-jarraibideak onartu dituzte, arautze harmonizatuaren mendeko ez diren kontratazio-prozeduretan aplikagarri izango den arautzea ezartzen dutenak, hain zuzen ere.